

Angela Mejias,

Hendaia Film Festivaleko zuzendaria

MUGAZ ETA INSTITUZIOEZ GAINDIKO FILM FESTIBALA

Extremadurako Val de la Calzada, 1958. Urte bat zuela gurasoekin emigratu zuen Frantziako Gers departamendura. Handik Irunera aldatu zen, Mosku auzora. Hendaian finkatu zen gero. "Txori bitxia zara, Angela". Irriño herabea zabaldu zaio: "Ez dakit nor naizen", erran digu.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Zuzenbidea ikasten hasi zinen. Defentsarik gabekoen abokatua izan nahi zenuela esan digu lagun batek.

Baina, halabeharrez, jostun, estilista edo sukaldari aritu naiz. Gaizki tratatutako aita emigrante baten alaba, munduko bazter batetik etorria. Etxean hotza eta gosea pasa genituen. Hori ez duzu sekula ahazten. Argazkilaria naiz. Mundua kurritzen dut usu, herri zapalduak batez ere, eta ohartzen naiz, ez zaigula axola haiek nola bizi diren. Haiek esplotatuta daude Mendebaldean gero eta gehiago nahi dugulako. Euskaldunak hemengo indigenak direla jakitun naiz txikitatik, baina euskaldunak ere konkistatzaileen antzerakoak bihurtzen ari dira edo gara. Instituzioetan leku hartzen dugun unetik, fini. Ipar Euskal Herriaz ari naiz orain, Hendaia film festivalaren esperientzia ezagutu ondoren.

Festivaleko zuzendaria zara. Aurten hirugarren edizioa izan da. Zein izan da zure esperientzia?

Biharamunean hustuta nintzen, erditze baten ondoren bezala. Itxiera ekitaldian "ez duzu deus egin" esaten nion nire bu-

ruari. Agurreko afarian jendea pozik zegoen, zinemagileek inpresioak eta kontaktak pasatzen zizkioten elkarri, baina ni haluzinatuta nengoen. Inpotentzia baino ez nuen sentitzen, bete ezin izan ditudan asmoak burutik kendu ezinik.

Hainbat arrazoi duzu kezu izateko, antza denez.

Aurten, lehen urtean ez bezala, autoritateek eta hedabideek ez digute atentziorik eskaini, ez frantses ez espainol aldean, *Sud-Ouest* egunkariaren salbuespenaz. Festivalak balio eta merezi duela erakutsi dugu. Hendaian pilota, errugbia, edo harri-jasotzaileak eta aizkolariak dira espresio nagusiak, folklorea oroz gain. Festivalak jendearen espiritua ireki du, kultura zinematografikoak lekua duela erakutsi dugu hiru urte hauetan.

Nola sortu zen festivala?

Argazki erakusketak egiten nituen, jite sozialekoak. Hauekin batera konferentziak ematen nituen. Alabaina, jendea ez zettorren gaiaren interesarengatik, egilea Angela zelako baizik. Argazkiak

politik zirelako eta beste. Besterik ez. Niri bost axola argazki polita izatea. Nire nahia munduan gertatzen dena jakinaraztea da. Nire buruan ez zegoen film festival bat antolatzea. Film-sorta baten bitartez topaketa moduko bat antolatu nahi nuen, jende-kopuru mugatu bati zuzendua. Ordea, festivala muntatu nuen erakusketa bat balitz bezala. Egiari zor, oker nengoen. Erotzat jo ninduten.

Nola definituko zenuke Hendaia Film Festivala?

Definiziorik eman gabe abiatu nintzen, baina ikuskizunak trukerako balio behar duen ideia nuen buruan: kidetasuna, jendetasuna, elkartasuna eta irekiduraren eredu izan behar zuen. Irekidura, lehenbizi herritarrenganako eta instituzioekiko ondoren. Nire helburua bete dut, umiltasunez diot. Satisfazioa ere hartu dut, baina ez erabatekoa. Hegoaldeko eta Iparraldeko jendea batzea lortu dugu neurri batean, baina ez nahi bezainbeste. Halaber, Frantzia, Espainia, Europa eta munduan barretetik hurbildu dira festivalera, eta tamainak gainditu gaitu.



“Festibalak balio eta merezi duela erakutsi dugu. Hendaian pilota, errugbia, edo harri-jasotzaileak eta aizkolariak dira espresio nagusiak, folklorea oroz gain”

“Serbia edo Eslovenia herrialdeetatik etorriak ezezagunak dira guretzat. Etorkizuneko zinemagileak ezagutarazteko eta hemengo publikoari filmak ezagutzeko parada da festibala”

“Akitania-Euskadi mugaz gaindiko instituzio frantsesek ez dute Hegoaldearekin elkarlanean aritu nahi. Akitaniako Erregioaren Gobernuak hiru urtetan ez digu deusik eman”

Film laburren festibala da. Zergatik?

Film laburra argazkia bezalakoa da, denbora laburrean inpaktua lortu behar du, argazki on baten antzera. Argazkilari ona zinegile bihurtu daiteke. Laburrak di -da batean transmititu behar du, jendea aspertu gabe, zaila da, baina oso egokia eta polita.

Zein da festibalaren aurrekontua?

Aurtengoak 24.000 euro balio izan du, baina gutxienean ordaintzeko ere ez daukagu. Inork ez du sosik kobratzen. Nik ez dut euro bat ikusi, urte osoko egun guztiak lanean. Argazkilaritza lantzeko betarik ez dut izan. Festibalak Begiradak elkarteari esker egin ditu hiru

urte, argazkilaritzako sortu nuen elkar-teak oinarri juridikoa eman digu. Bizitza ulertzeko beste modu bat duten lagunak biltzen dira, sistemaren alternatibak biltzen dituztenak, batzuk marjinatuak edo elbarriak dira, jende duina. Festibalean pozarren ari dira eta tokia hartzen dute jendartearen.

Zer gehiago behar du, zuk nahi duzuna lortzeko?

Oroz gainera, ez dut nahi Angela Mejiaren festibala izatea. Katalogoa, filmak eta eszenatokian egiten den guztia hiru hizkuntzetan egitea nahi dut. Aurtengo editoriala frantsesez baino ez dago. Lehen urtean mugaz gaindiko laguntza izan genuen, *Euskaraz bizi nahi dut* kanpainaren kariatara, Kontseiluarekin elkarlanean. Festibalean sartu genuen, berezko atala izan zen. Baina, laburmetriak ez ziren onak. Asmo onez eta amultsuki ekarri zituzten filmak, baina eskasak ziren. Bigarren urterako kalitate gehiago eskatu nien. Ez zuten ekarpena hobetu eta aurtengoz ez da sail hori izan. Ez da nahikoa lehiatzea, ekartzen diren lanek gutxieneko kalitatea behar dute. Frantsesezko laburrak euskaratu izan ditugu, ahalbideak eta diruak eman digun arte. Festibalaren xedeetako bat kulturen arteko ulertuntza erraztea da.

Akitaniako Erregioak behar luke festibala lagundu bereziki, baina ez da horrela izan. Instituzioen jarreraren inguruan iritzi nahasgarriak izan dira.

Hasteko eta behin, konstatazio bat: Akitania-Euskadi mugaz gaindiko instituzioko frantsesek ez dute Hegoaldearekin elkarlanean aritu nahi. Akitaniako Erregioaren Gobernuak hiru urtetan ez digu deusik eman. Lehen urtean normala da. Baina bigarreanean erakutsi genien zer egiteko gai garen. Eskutitz bat heldu zait laguntza ukatuz. Nik kritikatu dut bereziki Erregioa, EEP eta



Mugaz Gaindiko organismoa. *Sud-Ouest* egunkariak nire hitzak oso gaizki interpretatu ditu. Laguntza miserablea zela esan zuen, 1.400 euro jaso baikeuen; eta nire kritika osoa EKEri bizkarreratu zion. Ez da zuzena. Nik EKEko Pantxoa Etxegoien zuzendaria estimatzen dut. Baina, egiari zor, 21.400 euro horietatik 20.000 euro Hendaiaiko Herriko Etxetik jaso dugu. Gainerakoa, 2.600 euro, herritarrek eman dute. Battitte Salaberry auzapez ohia eskertu nahi dut bereziki, bera auzapez zelarik bultzada eman baitzion festibalari, proiektuan sinetsi baitzuen. Diru hori gabe, nola ordainduko genituzke epaileen hegazkin bidaiak eta beste gastuak? Batzuek festibala nire kapritxoa dela diote. EEPk ez du ulertzen filmak itzuli behar direla. Itzulpenak garestiak dira. Azpitu-luak behar dira, eta onak. Itzultzaileak, muntatzaileak eta teknikoak ordaindu behar dira.

Zer bagaje utzi digu aurtengo festibalak?

Nazioarte sailean goi-mailako filmak eman ditugu. Serbia edo Eslovenia bezalako herrialdeetatik etorriak, ezezagunak guretzat. Etorrizuneko zinemagileak ezagutarazteko eta hementxo publikoari filmak ezagutzeko parada da festibala. Akitania-Euskadi sailean berriz, Euskal Herrian egiten diren labur onenak bildu ditugu, baditugu puntako egileak, Telmo Esnal, Asier Altuna... Maleruski Akitanian ez dituzte ezagutzen. Euskal zinegile onenak dira labur nahiz lu-

zemetraian. *Amama* filma Espainiako Estatuan bigarren film ikusiena izan da, baina frantsesei ez zaie Hegoaldeko zinearen kalitatea axola. Horrek biziro ernegatzen nau.

Zein film azpimarratuko zenituzke?

Maïmouna Doucouréren *Maman(s)* sarritua biziki ona da, baina David P. Sañudoren *Artificial* eta Aitor Gutiérrezen *Anomalo* ez dira eskasagoak, Euskal Herrikoak biak. Nazioarte sailean, Lituaniako *The Fish of My Life* izan da irabazlea, Julius Siciunasena. Sarrituak onak dira, eta saritu gabeak ere bai. Nik sarrien gainera, film laburra gorai patuko nuke oro har: ematen du film laburrek ez dutela deus kontatzen, baina funtsezkoa kontatzen dizute. Munduan kokatzen gaituzte, egunerokoan zer garen azaltzen dizkigu irudi sortatxoak da. Film laburra errutinaren isla da, eguneroko arte espresio bikaina. ■

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com